



BAZENEKIEN...

...kontsumo fantasma, **Stand By** egoeran edo itzalita dauden etxetresna elektrikoek kontsumitzen duten energia dela (itzalita daudenean baina sare elektrikora etengabe konektatuta daudenean).

...bai Stand By-ren argi gorriak, bai hainbat etxetresna elektrikoek daukaten erlojutxoak energia kontsumo garrantzitsuak eragiten dituztela urtean zehar, **etxebizitza bateko elektrizitate kontsumoaren % 10-a izatera irits daitekeelarik**. Urtean 30-50€ko gastua.

...lehen erabiltzen ziren etxetresna elektriko analogikoetan ez zen hau gertatzen, pizte/itzaltze etengailuak sare elektrikotik deskonektatzeko giltzak zirelako.



Etxetresna elektrikoek kontsumoa, prezioa eta atmosferara igortzen duten CO₂ kantitatea Stand By-ren eraginez (gutxi gorabeherako baloreak):

TRESNA MOTA	kWh/urte	€/urte	kg CO ₂ /urte
DVD	35	5,96	22,6
Telebista	18	2,98	11,4
Musika Katea	53	8,94	34,2
Irrati-iratzargailua	61	10,42	39,9
Haririk gabeko telefonoa	35	5,96	22,6
Monitorea	9	1,49	5,7
PC bozgorailua	26	4,47	17,1
Router	70	11,91	45,6
Mikrouhin labea	35	5,96	22,6
Kafe makina	44	7,45	28,5
Baterien kargadorea	4	1	1,7

KONTSUMO ZENTZUDUN BATERAKO IDEIAK:

1. **Tresna elektrikoaren Stand By kontsumoari erreparatu erosi baino lehen.** Tresna bakoitzaren fitxa teknikoan ikusgai dago.
2. **Pizte/itzaltze etengailua dituen erregeletak erabili.** Hauekin hainbat tresna terminal berdinerara konektatuta egongo dira eta hau itzaltzean ez dute energia elektrikorik jasoko, ondorioz, ez dute kontsumorik izango.
3. Erregeletak erabili ordez **tenporizadoreak** erabili daitezke, gauean erabiltzen ez diren tresnak automatikoki deskonektatzeko, besteak beste, galdara termoelektrokoa, telebista, bideo kontsola...gauean oso gutxitan erabiltzen ditugunak.
4. Hala ere, aukerarik onena **erregeleta automatikoa edo "Stand By deuseztatzaileak"** erabiltzea da, garestiagoak dira (20-30€ inguru) baina oso azkar amortizatzen dira. Gainera erosoagoak dira eta politagoak gelditzen dira, izan ere, ez dute begi-bistan egon beharrik erregeleta arruntak bezala, ez baitute etengailurik. Hortaz aparte, beste etxe-tresna elektrikoak babesten dituzte gerta daitezkeen gainkargengandik. **Bi mota** daude:
 - ⇒ batzuk entxufe nagusi bat dute, konektatuta dagoen tresnaren kontsumoaren murrizketa sumatzean, entxufe horretara konektatuta dauden beste tresnak itzaliz (inoiz itzaltzen ez den beste entxufe bat izaten dute, adibidez telefonoa edo ruterterra konektatzeko erabili ohi dena);
 - ⇒ beste batzuk konfiguratu dezakegun errezeptore txiki bat dute, erregeleta piztu eta itzaltzeko urrutiko agintea erabiliz; horrela telebista itzaltzean, lotuta dauzkagun beste tresna guztiak itzaliko ditugu eta, aldiz, piztean guztiak martxan jarriko dira berriro. Honek daukan abantaila, entxufe nagusian konektatuta daukagun tresnaren kontsumo fantasma saihesten dela da.

Erregeleta etengailuarekin



Tenporizadorea



Erregeleta automatikoa



**DENBORA ETA PAZIENTZIA PIXKA
BAT IZAN BEHAR DA STAND BY-ak
AURKITZEKO ETA
ERREGELETAK
IPINTZEKO, BAINA BENETAN
AURREZTEN DENA OSO
GARRANTZITSUA IZAN DAITEKE!!
ANIMA ZAITEZTE!!**

